

Don JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGA Jn.

Donostiako Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek Secretario General del Ayuntamiento de San Sebastián

Neuk ziurtatua: Certifico:

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, 2023ko urtarrilaren 24an izan zuen ohiko bileran, erakunde adierazpen hau onartu zuen, gehiengoz:

Erakunde Adierazpena, PP Taldeak aurkeztua, joan den abenduaren 2an Donostian hil zen Raúl Guerra Garrido idazle eta eleberrigileari buruzkoa.

“Joan den abenduaren 2an, Raúl Guerra Garrido idazle eta eleberrigilea hil zen, Donostian. Madrilen jaio zen, 1935ean, eta Donostian bizi izan zen 1960az geroztik, botikari lanean.

Hainbat sari jaso ditu, besteak beste, Nadal Saria (1976) eta Letren Sari Nazionala (2006), eta, 2019an, Alfontso X.a Jakitunaren Ordena eman zioten.

Bere literatur lanean, Raúl Guerra Garridok euskal gizartearekin lotutako alderdi politiko eta sozialak jorratu zituen. ETArek aurkako borrokarekin zuen konpromisoak eta bere uste sendoek, Ermuko Foroaren sortzaileetako bat izatera eraman zuten, baina, baita ETArek inguruko jazarpena jasatera ere; izan ere, hainbatetan eraso zieten bere jabetzei eta bere familiarenei.

Idazlea mehatxatuta egon zen, eta eskolta eraman behar izan zuen hainbat urtez. Raúl Guerra Garrido ETArek aurkako disidentziaren sinbolo bihurtu zen.

Horregatik, behean sinatzen dugun udal taldeok honako erakunde-adierazpen hau aurkezten dugu:

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 24 de enero de 2023, aprobó, por mayoría, la siguiente Declaración Institucional:

Declaración Institucional, presentada por el Grupo PP, sobre el escritor y novelista Raúl Guerra Garrido que murió el pasado 2 de diciembre en San Sebastián.

“El pasado 2 de diciembre murió en San Sebastián el escritor y novelista Raúl Guerra Garrido. Nacido en Madrid en 1935, Guerra Garrido fue un donostiarra de adopción que vivió en San Sebastián desde 1960 donde ejerció como farmacéutico.

Fue ganador, entre otros, del Premio Nadal (1976) y Premio Nacional de las Letras (2006) y distinguido en 2019 con la Orden de Alfonso X el Sabio.

En su obra literaria, Raúl Guerra Garrido abordó aspectos políticos y sociales relacionados con la sociedad vasca. Su compromiso en la lucha contra ETA y la firmeza en sus convicciones le llevó a ser uno de los fundadores del Foro de Ermua, pero también a sufrir el acoso del entorno de ETA, que atacó en varias ocasiones sus propiedades y las de su familia.

El escritor estuvo amenazado y tuvo que llevar escolta durante varios años. Raúl Guerra Garrido se convirtió en uno símbolo de la disidencia contra ETA.

Por estos motivos, los grupos municipales firmantes presentamos la siguiente



ERAKUNDE ADIERAZPENA

1. Donostiako Udalak Raúl Guerra Garrido jaunaren familiari bere dolua erakutsi nahi dio, ETaren aurkako disidentziaren sinboloetako bat izan zenaren heriotza dela-eta.

2. Donostiako Udalak aitortu nahi du Raúl Guerra Garridok egindako lana, bai idazle eta eleberrigile gisa egindakoa bai Ermuko Foroan ETaren aurkako borrokan egindakoa.

3. Donostiako Udalak hitzematzen du Raúl Guerra Garrido izena emango diola Donostiako kale, plaza, parke edo kultur erabilerako erakin bati”.
=====

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatezak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, 2023ko urtarrilaren 31an.

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

1. El Ayuntamiento de San Sebastián quiere trasladar a la familia de Raúl Guerra Garrido sus condolencias por el fallecimiento del que fuera uno de los símbolos de la disidencia contra ETA.

2. El Ayuntamiento de San Sebastián reconoce la labor realizada por Raúl Guerra Garrido, tanto en su faceta de escritor y novelista, como en su trabajo en el Foro de Ermua en la lucha contra ETA.

3. El Ayuntamiento de San Sebastián se compromete a dar el nombre de Raúl Guerra Garrido a una calle, plaza, parque o inmueble municipal cultural de San Sebastián”.
=====

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a 31 de enero de 2023.

IDAZKARI NAGUSIA – EL SECRETARIO GENERAL

Juan Carlos ETXEZARRETA VILLALUENGA

ALKATEAK O. E. -
V. ° B. ° DEL ALCALDE: